



## Jokin Bildarratz Sorron

Hezkuntza sailburua

## TREBAKUNTZA

- **UPV/EHuren Masterra: Integrazio Politikoa eta Batasun Ekonomikoa Europar Batasunean** (2012)
- **Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua**, Zientzia Politikoak espezialitatea, UNEDen (1998)
- **Magisteritzan diplomatua**, Natur Zientziak espezialitatea (1985)
- **Hizkuntzak:**
  - Euskara: ama hizkuntza, EGA ziurtagiria
  - Ingelesa: maila ertain-altua ahoz eta idatziz
  - Frantsesa: maila ertaina ahoz eta idatziz

## IBILBIDE PROFESIONALA

### KARGU PUBLIKOAK

#### *Europako esparruan*

- 2007tik 2011ra: **Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko kidea**
- 2007tik 2011ra: **Toki eta Eskualde Botereen Kontseilu Nagusiko kidea**
- 2016tik 2020ko irailera, **Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarreko kide titularra izan da, eta migrazio, errefuxiatu eta desplazatuen Batzordeko bigarren presidenteordea**

#### *Estatuan*

- X., XI., XII., XIII. eta egungo XIV. legegintzaldiak; 2013ko urtarrilaren 24tik 2020ko irailera **Estatuko Gorte Nagusietan senatari autonomikoa** izan da Madrilen, eta Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko (EAJ-PNV) bozeramaile
- **Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluko kide iraunkorra** izan da, **Senatuaren ordezkari** gisa

### *Autonomia Erkidegoan*

- 2012ko martxotik 2013ko urtarrilaren 24ra arte EAJ-PNVren Gipuzkoako zuzendaritzako kide izan da
- 2007ko irailetik 2011ko irailera: **EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteko elkarteburua**
- 2003ko maiatza – 2011ko maiatza: **Tolosako alkate** (Gipuzkoa)
- VII legegintzaldia: Legebiltzarkide Eusko Legebiltzarrean, EAJ-PNV taldean
- 1995eko maiatza – 2003ko maiatza: **zinegotzi Tolosan** (Gipuzkoa)

### BESTE ARLO PROFESIONAL BATZUETAN

- 2011-2012 **Bigarren Hezkuntzako irakasle, Anoetako Ikastolan**
- 1997-2001: **Programa berezien eta marketinaren arduraduna EITBn**
- 1991-1994: Legazpiko **Haztegi Ikastolaren kudeatzaile**.  
Kilometroak 94ren antolatzaile
- 1988-1991: **Anoetako Ikastolaren zuzendari**.
- 1986-1988: **Anoetako Ikastolan irakasle**